



*Muskiz, meatze-  
ondarea  
berreskuratzeko  
lanean*

*/3. orria*

*Herritarrei  
informazioa  
emateko bideak  
eraberrituta*

*/2. orria*

*Udalak 68  
herritarren  
kontratazioa  
sustatuko du*

*/4. orria*

*2015ean,  
edateko uraren  
biltegiak  
hobetuko dira*

*/5. orria*

*Jarraitzen dugu  
Txistu Taldea,  
tradizioei eusten*

*/6. orria*



## Editoriala

### *Bizitza-kalitatea hobetzen*

Orain dela hiru urte eta erdi, nik zuzentzen dudan taldea buru-belarri hasi zen aurreko udalbatzek hasitako zereginari ekin, eta Muskiz eraldatzeko eta hobetzeko lanean, xede argi batekin: "pertsoneen bizitza-kalitatea hobetzea".

Gure giza taldeak gogor jardun du, besteak beste, pertsonen irisgarritasun aldetik dituzten arazoak konpontzeko, eta, ildo horretan, espaloi zabalagoak eta beheratuak egin ditu, eta igogailuak, oinezkoentzako bidexkak, auzo-bideak eta bestelakoak atondu ditu. Era berean, langabezia gutxitzen saiatu gara, eta, besteak beste, tokiko planak prestatu ditugu, hitzarmena sinatu dugu Cáritasekin, langabeak kontratatu ditugu herri-lanetan aritzeko, pizgarriak eman dizkiegu enpresei kontratazioak egiteko, laguntzak banatu dizkiegu saltokiei... Horrez gain, inbertsioa egin dugu aisialdia, kultura eta kirola sustatzeko. Nabarmetzeko modukoak dira kiroldegian egindako eraberritze-lanak, spinninga eta gimnasio berria, igerilekua, dantza-jarduera berriak, Gaztegunea, liburutegia, haur-parkeak, lorategiak...

Proiektu horietako batzuk itxita daude, edo ixten ari gara, eta, bitartean, beste batzuekin ari gara lanean, Muskizko udalerriri eta bertako biztanleek hobekuntzak eta aukerak izan ditzaten etorkizunean ere. Bukatu gabe dauden proiektu horien artean, jarraipena eman behar diogu Barbadun ibaiaren ondoko oinezkoentzako bidexkari, San Juan plazatik Pobal burdinolaraino eramanda. Proiektua oso aurreratuta dago, eta epe ertainean gauzatzeko asmoa dugu. Etorkizuneko plangintza egitea ezinbestekoa da herriek handitzen jarraitzeko aukera izan dezaten.

Ahalegin handia egin dugu, baina merezi izan du. Eskerrak eman nahi dizkizuet, geure hondar-aletxoa jartzeko aukera eman diguzuelako, jaio eta bizi garen herria hobetze aldera. Bidean hamaika oztopo aurkitu ditugu, baina albora uzten saiatu gara, irudimena erabiliz, ahalegina eginez, hizketan arituz, lanean (gogor) jardunez, informazioa emanez, prestutasunez eta gardentasunez. Eskerririk asko denbora honetan eman diguzuen laguntzagatik. Zorionak eta urte berri on!

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## *Herritarrekin harremanetan jartzeko bideak eraberrituko ditu Udalak*

**U**dalak Muskizko herritarrekin harremanetan jartzeko dituen bideak eraberrituko ditu. LED motako 4 panel jarriko ditu, herritarrei informazioa erraz, berritasunez eta eraginkortasunez emateko. Pantailetako bikoitza izango dute, eta toki hauetan jarriko dira: geltokiko bidegurutzean, Antonio Trueba kaleko 1. zenbakiaren parean, eta Errota Zaharrean, oraingo panela ordezkatzuta. Beste bi panelek aurpegi bakarra izango dute informazioa emateko, eta leku hauetan egongo dira: Cruceron, BBK bulegoaren aurrean, eta Meatzari plazan.

Udalak gardentasunez jokatu nahi du udalkontuetan, eta, horren erakusgarri, ekimen asko jarri ditu abian erakunde publikoen eta herritarren artean informazioa emateko

dauden bideak bultzatu eta eraberritzeko. Besteak beste, Muskizko webgunea berritu, eta udal-aldizkaria argitaratu du. Bestalde, jarduera horien bidez, tresnak eman nahi izan dizkie herritarrei, udal-ekimenetan parte hartu ahal izateko.

### *Bide eta herritarren segurtasuna*

Ekimen honen barruan, 21 kamera finko eta mugikor jarriko dira, trafiko-dentsitate handia duten edo Udaltzaingoa kontrolatik urrun samar dauden udalerriko eremuetan, eta gaur egun telebistako zirkuitu itxirik ez duten eraikin publikoetan, adibidez, udal-kiroldegian, Meatzarin, kultur etxean eta Santelices biltegian. Ekimen honen azken aurrekontua 185.000 euro ingurukoa da, eta lanak egiteko aurreikusitako den epea hiru hilabete ingurukoa da.

## *Muskiz BHIko hezetasunak kentzea*

Udalbatzaren ustez, laster hasiko dira Muskizko BHI zabaltzeko obretan sortu diren hezetasunak kentzeko lanak, obren kontratua hasieran jaso zuen enpresak uko egin ondoren sortu ziren administrazioako oztopoak gaindituta. Hain zuzen, hegalek jarriko dira, alde batetik, goialdea euritik babesteko, eta, bestetik, bi eraikinen estetika bateratzeko. Horrez gain, orain dauden ateak eta leihoak kendu, eta egurasbideak eta zubi termikoaren haustura dutenak jarriko dira. Bestalde, lauza iragazleak jarriko dira teilatuan.





## Argiteria publiko eraginkorra eta gastu gutxikoa

Udalak baimena eman du bi lehiaketa egiteko, argiteria publikoko eta udal-instalazio batzuetako –hain zuzen, kiroldegiko, Cantarrana herri-ikastetxeko eta pilotalekuetako– argiak berritzeko. LED motako argiak jarri nahi dira, energia aldetik eraginkorragoak direlako. Udalbatzak legegintzaldi honetan bultzatu duen iraunkortasuneko politikaren barruan sartuta daude bi ekimenak.

Neurri hauen bidez lortuko den urteko aurrezkiaren aurreikuspena 75.000 eurotik gorakoa da. Ildo horretan, alde batetik, udal-kutxan egoera hobetu ahal izango

da, muskiztarrei eskainitako zerbitzuak murriztu beharrik gabe, eta, bestetik, jarraipena eman ahal izango zaie berotegi-efektuko gasaren isurpenak gutxitzeko abian jarritako ingurumeneko jarduerari.

LED argiak jartzeko eta udal-eraikinetan gas-galdarak jartzeko legegintzaldi honetan egin diren jarduera guztien bidez, Udalbatzak 150.000 euro aurreztu nahi ditu kontsumoan urteko, eta milioi eta erdi euro ekipamenduen bitzita erabilgarrian. Horrez gain, 185 tona gutxiago bota nahi du CO<sup>2</sup> isurpenetan, eta hori 276 zuhaitz aldatzeak duen balio berekoa da.



## Ingurumen Sailak ISO 9001 lortu du

### Udalak herritarren konfiantza eta gardentasuna indartu nahi ditu

Udalaren Ingurumen Saila izan da ISO 9001 kalitate-ziurtagiria lortu duen lehenena. Ezarrita dauden gainerako sistemen barruan txertatuko da. Horiei esker, ISO 14001 eta OSHAS 18001 ingurumeneko eta lan-segurtasuneko ziurtagiriak eskuratu dituen Estatuko lehen udala da Muskiz. Eskaintzen dituen zerbitzuen gardentasuna eta herritarren konfiantza indartu nahi ditu Udalak, eta, hortaz, sistema bat ezarri nahi du udal-sail guztien kalitatea eta zerbitzuko gutunak kudeatzeko.

Hartutako konpromisoei dagokienez, ingurumen-arloan, zaratak eragindako arazoak direla-eta izan diren salaketak ikusita, neurketak egingo dira, egoera errepikatu eta lehenengo 24 orduetan, kanpainak antolatuko dira ikasleei eta, oro har, herritarrei informazioa emateko, eta jasotako kexen eta eskaeren %90 3 egun balioduneko epean izapidetuko dira, eta 15 eguneko epean erantzuna emango zaie. Bestetik, larrialdiei eta segurtasunari dagokienez, ahalegina egingo da instalazioetako mantentze-lan kaskarren ondorioz eraikin publikoetan istripurik egon ez dadin, eta Muskizen antolatzen diren ekitaldi guztietan segurtasuneko babesgailu bat jarriko da edo laguntza emango da batez beste 10 minutuko tartean.

## Muskiz, meatze-ondarea berreskuratze lanetan

Muskizko itsasaldea Bizkaiko meatze-ondareak duen kokalekurik nabarmenetakoa da, zalantzarik gabe. Itsasaldearen eta hurbileko mendien artean, meatzeen mugape zaharrak daude: Amalia Vizcaina, San Francisco, Josefa, Consolación, Complemento edota Asunción. Udalak gune hori eraberritu nahi du, kultura- eta natura-ondareek bat egin, eta esanahi ugariz hornitzen baitute lekua.

Proiektua bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak emandako dirulaguntzak ditu Udalbatzak. Industria-ondare eta natura-arloko adituen talde bat lanean aritu da hiru urtez, tokia ezagutzen eta informazioa biltzen, Carrascal, Pobeña, Cobaron, Campomar eta El Hoyo auzoetan. Hori abiaburutzat

hartuta, Paisaiaren Ekintza Plana prestatzen ari da orain.







## Prestakuntza gazteentzat

Muskizko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzarekin, prestakuntzako ikastaro espezializatuak bultzatzen ditu enplegarritasun-maila altuko lan-sektoreetan. Prestakuntza gutxi eta lana aurkitzeko zailtasun ugari dituzten 18 eta 30 urte arteko langabe gazteei zuzendutako Meatzari Gaztedi Programan dago sartuta ekimena. Azken aurrekontua 30.000 euro ingurukoa da. Esperientzian parte hartuko duten 15 gazteek erakunde sozialetan mendeko pertsonen osasun-laguntza emateko profesionaltasun-ziurtagiria eskuratuko dute. Horren bidez, aukera izango dute erakunde ofizialetan lan egiteko, esaterako, egoitzetan eta adinekoak zaintzen espezializatuta dauden zentroetan.



## 28 lanpostu, baztertuta geratzeko arriskuan dauden lagunentzat

**Udalak 500.000 euro bideratu ditu Cárítasen programa batera, enplegua sortzeko egindako lehen akordio publiko-pribatuan**

**U**dalak eta Bizkaiko Cárítasek lehen akordio publiko-pribatua sinatu dute gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko. Muskizek milioi erdi euro bideratuko ditu GizaLAN programara, ahul edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 28 herritarrek hamabi hilabetez lan egin dezaten irabazi asmorik gabeko erakundeetan. Udalak eta Cárítasek ez dute erabat bazterten ekimen honetako parte-hartzailearen batek enplegua jarraitutasun gehiagoz aurkitzeko aukera.

Hona hemen lanpostuen tipologia: hamar profil, gizarte-heziketako esku-hartzean

(monitorea, psikomotrizista, gizarteratzailea, gizarte-langilea, hezitzailea, etab.); zazpi, bulegoan (administrazioko postuak, harreragilea, informatikariak); sei, osasun-laguntzaile eta zaintzaile lanetan; hiru, mantentze-lanetan, eta, azkenik, bi, sailkatzaile eta zerbitzari lanetan.

Hitzarmenaren bidez, 28 lanpostu sortu nahi dira irabazi asmorik gabeko hogeita bost erakundetan. Gehienak urtebeteko iraupena dute, eta lanaldi osoak dira. Ahul edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden edota gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan izan diren edo dauden pertsonen zuzenduta daude.

## Udalak 21 langaberen kontratazioa sustatuko du

Udalbatzak 270.000 euro inguru erabiliko ditu laguntzarik jasotzen ez duten luzaroko langabeak lan-merkatuan txertatzeko. Lanbide eta Forlan arduratu dira hurrengo sei hilabeteetan kontratua izango duten 21 muskiztarrek hautatzeaz. Kontratu gehienak lanaldiaren hiru laurden edo gehiago egiteko dira; hiru langile baizik ez dira lanpostuetan lanaldi erdian arituko.

Bestetik, abenduan, Muskizko 19 herritarren lan-kontratua bukatu da. Horiek ere enplegua sustatzeko onartutako ekimenen onurak hartu dituzte. Kasu honetan, Udalak 165.000 euro inguru eta Lanbidek 83.000 euro onartu dituzte pertsona horiek 6 hilabetez lan-merkatuan txertatzeko. Pertsona horietatik, bederatzi Muskizen langabeziarekin arazo gehien duten biztanleen adin-taldekoak dira.

## Bonodenda, erabateko arrakasta

“Urrutiago joan gabe” goiburuko kanpainarekin bat egin duten 32 saltokitan trukatzeko jaulki ziren 1.000 bonodenda txartelak erabateko arrakasta izan dira. Abenduaren 17a iritsi aurretik trukatu behar ziren txartel horien bidez, muskiztarrek erosketen balioaren %25 aurreztu dute: guztira, muskiztarrek 30 euro inbertitu dituzte erosketan, eta 40 eurotik gorako balioa duten salgaiekin trukatu dituzte. Bonodendaren lehen edizio honetan, era askotako saltokiek hartu dute parte: estetikako establezimenduak, ile-apaindegiak, janari-dendak, modako eta dekorazioko dendak, jatetxeak, tabako-dendak, liburu-dendak eta burdindegiak.





## Ehun mila euro, edateko ur-biltegiak hobetzeko

**U**dalak 100.000 euro inbertitu nahi ditu 2015ean udalerriko hainbat alderdi edateko urez hornitzen dituzten biltegiak eta haien ponpatze-sistemak garbitzeko eta egokitzeko. Ponpatze-estazio zaharrak eraberritzeko lanak orain dela gutxi hasi dira, Udalbatzak Muskizko edateko uraren sarea optimizatzeko bultzatu dituen jardueren artean.

Izan ere, urriaren amaieran, Tokiko Gobernu Batzarrak onespena eman zuen ponpatze-estazio zaharrak eraberritzeko lanen lizitazio-espeditentia hasteko,

Memerea, Valle, Camino Mello eta Janeo auzoetan. 2013. urtean Rigada, Fuente Vieja eta Santelices auzoetan egindakoei gehitu behar zaizkie lan horiek.

Bestalde, Udala lana amaitzen ari da Eusko Jaurlaritzak Los Enfermos eta Carrascal auzoetan antzeman dituen akatsak zuzentzeko eta udalerriko biltegi zaharkitu batzuk konpontzeko obren balioespina egiteko. Eraberritze-lanak egingo dira, Osasun Sailak hala eskatu duelako txosten batean. Testu berean, Sailak argitu du arazo horiek ez dutela eraginik izan uraren kalitatean.



## Itsaslurreko hesiak ordezkatzea

Gobernu Batzarrak baimendu egin du Itsaslur ibiltokiko hesian 1.700 metro linealetik gora ordezkatzeko lanak esleitzeko espeditentia. 100.000 euro inguruko aurrekontua, eta 2 hilabeteko epea du egiteko. Kaltetutako hiri-altzariak kendu, eta pinuzuz egindako beste batzuk jarri nahi dira, IV. babes-mailakoak. Udalari egoki iruditzen zaio lan horiek zenbait fasetan egitea, auzokoei eta oinezkoei ahalik eta arazo gutxien sorrarazteko.



## Barbadun ibaiaren gaineko igarobideko egitura berri egin da

Udalak mantentze-lanak egin ditu Barbadun ibaiaren gaineko igarobideko egituraren euriak eta hezetasunak eragindako kalteak arintzeko. Ildo horretan, plaka babesle bat jarri du goialdean. Guztira, 17.500 euro inbertitu ditu obretan, eta, horri esker, igarobideko metalezko eta zur laminatuzko egitura garbitzeaz gain, zirrirituak zigilatu, eta pinturaz margotu du, jatorrizko koloreari eutsita.



## Kirol askotarako pista Glorieta auzoan

Oraingo Udalbatzak kirol askotarako pista bat egin nahi du Glorieta auzoan. 600 metro koadroko azalera izango du, eta hesi batek inguratuko perimetro osoa, ondo babesteko baina aldi berean kanpotik ikusteko aukera emanda. Pistak hau dena izango du barruan: saskibaloiko bi saski finko, aluminiozko taulez eta bandalismoaren aurkako uztaiz hornituak, eta bi futbol-ate, itxiturako egitura txertatuta. Jarduera honen aurrekontua 80.000 eurotik gorakoa da.



## Elkarrizketa

### Jarraitzen dugu Txistu Taldea, gure folkloreaki eusten



“Aurten, XV. urtemugarekin bat etorriz, aitorpen handia jaso dugu

Elkarte honen sorrerak filmetakoa ematen du: “erretiroa” hartutako txistulari batek bere zaletasunari berriz ekitea erabaki, eta bere sorterriko zaindariaren jaietan jotzea erabakitzen du; gero, haur batek, musikarekin liluratuta, irakasteko eskatzen dio. Istorioko gizon heldua Guillermo Higuera da, 1998tik gaurdaino Jarraitzen dugu Txistu Taldeko presidentea. Aurten, XV. urtemugarekin batera, egindako lanaren aitortza jaso du DEIA Hemendik Sariak Ezkerraldea 2014 VII. edizioan.

**G/ Aurten, elkarrearen XV. urteurrena izateaz gain, aitortza jaso duzue. Urte “biribila” izan duzue, beraz.**

*E/ Urte honetan XV. urteurrena ospatzeko, argazki-erakusketa antolatu dugu Mea-*

*tzari Aretoko atarteetan, San Juan jaietan. Argazki horien bidez, gure historia erakutsi nahi izan diegu muskiztarrei. Horrez gain, elkartean urte hauetan egindako lanaren aitortza jaso dugu, eta oso harro gaude horretaz.*

**G/ Zein da hamabost urte dituen elkarte honen helburu nagusia?**

*E/ Gure helburu nagusia da txistuaren soinua –gure musika-tresnarena– udalerriko ekitaldietan entzunaraztea. Hortaz, jai-batzordeek eta kirol- eta kultura-elkartek badakite gure laguntza izango dutela antolatzen dituzten ekitaldiak alaitzeko.*

**G/ Gazteek ba al dute interesik txistua bezalako tresna batekiko?**

*E/ Jarraitzen dugu Txistu Taldean txistua jotzen ikasteko, gogoak izatea baino ez da izan behar; gainerako guztia guk jarriko dugu –poxxolina ere bai-. Gainera, orain oso irakasle ona dugu –Amaia Pérez-, txikienei hasierako eskolak emateko. Beraz, ondo bermatuta dugu belaunaldiko erreleboa.*

**G/ Zenbat lagunek hartu du parte Jarraitzen dugu Txistu Taldeak antolatu dituen eskoletan?**

*E/ Urte hauetan, ehundik gora neska-mutilek ikasi dute txistua jotzen gure elkartean. Baina, horrez gain, txistua alde batera utzita zuten txistulari heldu batzuk “berreskuratu” ahal izan ditugu, eta harro-harro gaude horretaz.*

### Droga-mendekotasunari buruzko Tokiko II. Plana aurkeztu du Muskizek

Udalak Droga-mendekotasunari buruzko Tokiko II. Plana aurkeztu du. Tresna honen bidez gizartearen sentsibilizatu nahi du, drogak hartzeak dituen ondorioei buruz. Planean, argi garatuta daude Udalak egoerari aurre egiteko hartu dituen konpromisoak. Udalarduradunek dokumentu bat prestatu dute, Droga-mendekotasunei buruzko Deustuko Institutuarekin elkarlanean.

Agiriak ondo islatu nahi ditu Muskizen bultzatu diren prebentzioko politikak eta jardun-ildo berriak, gizarteko eragileek, erakundeek eta, oro har, herritarrek etorkizunean landu ditzaketanak. Hausnarketa eta azterketa eginez, bide bat marrazten da jarduteko. Ahaleginak bateratu behar ditugu horretan, gizartearen sentsibilizatu ahal izateko, drogak hartzeak eta bestelako mendekotasunek dituzten ondorioez.



### “Hobetu zure bizitza”, onuradun gehiagorentzat

“Hobetu zure bizitza” programaren bidez, orain arte Farsia herriko 105 biztanlek jasoko dute likidoak hornitzeko laguntzen onura. Hain zuzen ere, 3.150 litro esne eta 200 cc zuku duten 2.835 kaxa eskuratuko dituzte hileroro. Parte-hartzaileak adinean aurreratuak, ahalmen urrikoak edo egoera ekonomiko kaskarrean dauden lagunak dira. Udalak bultzatutako proiektu honen azken aurrekontua 19.623 eurokoa da, 2015eko lehen lauhilekorako.

